

# Antonio Arrue

J. SAN MARTIN

Uste gabeko berri beltz bat izan genuen 1976ko azaroaren 16an Antonio Arrue euskaltzaina eta EGAN aldizkari honen zuzendarietako bat eta kokaborarearen heriotzaz.

Igazko urtetik makalik zebilen, baina bere makaltasunez ere Euskaltzaindiko batzar guzietara agertzen zen eta, elkargoaren Gipuzkoako batzordeko buru bezala, azken ordura arte bete izan zituen bere eginkizun guziak eta inork ez genuen espero holako nahigabe beltzik.

Jaun honen lehen ekintzak aldetikakoak izan ziren, duela berrogeitamar urte ingurutik. Errepublika garaian Gipuzkoako Comuni3n Tradicionalista zeritzan karlisten alderdiko idazkari izan zen. Alderdi honen langile kartsua ez ezik hautezkundeetan hizlari bezala aritu zen, eta denbora haietan karlisten gogoak berbizteaz asko zor zaio.

Gerrate garaian bertan errege karlistaren alde jokatu zuen, guduaren agintaritzak bere eskuetara eraman nahirik eta alderdien batasunaren dekretoa eman zutenean desterrua izan zuen. Pasarte hau beti kontatzeko izaten zuen gure euskaltzainkideak, bere ideoetan zintzo jokatzearen adibidez. 1967an, Gipuzkoako familien aldetik Gorteetako diputadutza hartu arte apenaz izan zuen politikazko kargu garrantzitsurik.

Bere ogibidez lege-gizona zen. Lekarotzen egin zituen lehen ikasaldiak eta ikasketa nagusiak Oviedo-ko Unibertsitatean. 1932an hasi zen “La Constancia” egunkarian euskaraz idazten. Garai haietan bere hitzaldirik gehienak ere euskaraz izaten ziren. 1954an euskalteain izendatua izan zen eta geroztik lan asko egina du Euskaltzaindiaren inguruan. Gainera, baita ere, Julio Urkijo Mintegiko zuzendaritzakoa zen bere sorrera sorreratik.

Gerraondoko bertsoalaritza txapelketak antolatzen ere asko lagundu zuen. Batez ere, baimen asko berari esker lortu izan ziren eta gure artean euskararen aurreragintza lanetatik sortzen ziren oztopo eta larrialdietan ere makina bat aldiz lagundu zigun. Encomienda al Mérito Civil delakoaren jabe zen. Hoiegatik eta batez ere bere politikaren egoeragatik itzal handia zuen eta itzal horren babesera jotzen genuen, jakin jakinean laguntzarik ez zigula ukatuko. Bestalde, bere presentziak, euskara abertzale alderdi batzuen gauza soila ez zela erakusten zuen herriaren aurrean. Hizkuntza, arbasoegandik jabetu garen hizkuntza, herriarena bait da eta ez politikariena. Euskara ez da politikan negoziatzeko gauza bat, ez. Baina, bereiztu behar ditugu euskararen etsai daudenek, zeren hauek herriaren etsai bait daude.

Asteasun sortua, 1903an, baina aspaldiko urteetan Donostian bizi zen.

Idazle bezala, bere idatzi guziak bilduko baginuzke, uste baino narroagoa agertuko litzaiguke. EGAN, Euskera, El Fuerista, Zeruko Argia, eta abar, ehundakak artikuluak eta saioak idatzi ditu. Baita ere, euskal idazle eta euskaldungoan aritu ziren pertsonaje askori buruzko bio-bibliografia erazko hitzaldiak eman izan ditu. Hitzaldi hoiek idatzirik eramaten zituzenez aipatu ditugun aldizkarietan argitaratuak daude. Hoiatarik, une honetan gogoratzen garenak: Asteasuko Agirre, Gerriko, L. L. Bonaparte printzea, Mogel (*Peru Abarka* liburuaren hitzaurrea), Azkue, Urruzuno, Loramendi eta abar.

Gerraondoko poesia berriaren hasierak ezagutzeko oso lan ederra da erdaraz idatzi zuen saiera bat, “Cuatro poetas vascos actuales”, hitzaldiz emana eta gero Euskaltzaindiaren Euskera aldizkarian argitaratua.

Erderaz emandakoetarik beste hauek ere argitaratuak dira: “San Sebastián y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas” eta “El bertsolari Borden en el castillo donostiarra”.

Baina euskararen arloan egin duen lanik bereziena gastronomiazkoa izan da noski. Euskal literaturan, nik dakidanik, hiru liburu soilik idatzi dira janaritzaz. Antonio Arruek, 1954tik hil arte EGAN aldizkariako zenbaki guzietan sail oso bat izan du “Jan-edanak” izenez. Grazia handiko idazkera zuen eta umore onik ezta falta janedaneko kontu hoietan. Bere lanok bilduko balira gastronomiazko liburu eder bat osatuko genuke, eta merezi du, zeren euskaraz ez baita gehiegi landu holako gaia. Sociedad Gastronómica Vasca delako elkartearen bazkide zen eta bertako boletinean ere baditu zenbait lan. Baina denen gainez, gai hontaz eman duen lanik aberatsena EGAN aldizkariakoa izan da. Bertatik hartutako atal bat argitaratu genuen *Hegatsez* deritzan hiz-lauzko bilduman, Alejandrokekin elkarrizketan izenekoa, eta geuk dakigu zer harrera ona izan zuen irakurlearen artean.

Euskaltzaindiaren nortasuna lortzeko lanetan ere gogoz jardun zen. Lehen lehendik izan zuen gogoko. Lehen jardun haiekin lortu ez bazen ere, geroko egoera hobeago batetik etorri bazen ere, hastapenetako haziari esker lortu zen. Ordura arte gure ekintzeta aurkitzen genituen loturak bertan behera utzi ziren, lanerako aukera hobeak lortzeko.

G. B. Gure adiskide eta lankide bikaina.

J. S. M.